

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA 2017ko URRIA


Euskal AEko industri jarduera %2,6 gehitu zen 2017ko urrian

Industri Produkzioaren Indizeak %2,7ko gehikuntza 2017ko lehen hamar hiletan

EUSTATen datuen arabera, lan-egutegi homogeenan, Euskal AEko industri produkzioa %2,6 gehitu da 2017ko urrian 2016ko hil beraren aldean. 2017ko lehen hamar hiletan %2,7ko hazkundera, 2016ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,7 jaitsi zen industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2017ko irailarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2017ko urrian, 2016koaren aldean: *Bitarteko ondasunetan* %5,7ko gehikuntza; *Energian* %1,1; *Ekipoko ondasunetan* %0,8; *Kontsumo ondasunetan* %1,1 jaitsi. *Kontsumo ondasun iraunkorrek* %7,6 gehitu; *ez-iraunkorrek* %4,3 jaitsi.

Hil artekoa, 2017ko urrian irailaren aldean, positiboa *Bitarteko ondasunetan* bakarrik, %0,1. *Energia* %2,4; *Ekipo ondasunak* %0,9; *Kontsumo-ondasunak* %2,8. *Iraunkorrek* %2,5; *ez-iraunkorrek* %2,9.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkundeak 2017ko urrian, urte artean: *Kautxu eta plastikoa* %13,7; *Makineria eta ekipoa* %7,1; *Metalurgia eta metalezko produktuak* %7,0. Jaitsierarik handienak urte artean: *Zura, papera eta arte grafikoak* %-8,5; *Material eta ekipo elektrikoa* %-4,8; *Elikadura industriak, edariak eta tabakoa* %-1,8.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	7,0
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-0,3
09 - Kautxua eta plastikoak	13,7
13 - Makineria eta tresneria	7,1
14 - Garraio-materiala	-0,5
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-1,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-4,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-8,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, urte artean: %1,8 gehitu Araban; %0,8 Bizkaian; %4,9 Gipuzkoan.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2017ko Urria

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urr2017 / Urr2016	A(Urr2017) / A(Urr2016)(*)	Urr2017 / Ira2017	Ira2017 / Abu2017
Indize orokorra				
Euskal AE	2,6	2,7	-0,7	-1,5
Araba/Álava	1,8	2,9	-2,2	-0,3
Bizkaia	0,8	4,1	-0,7	1,3
Gipuzkoa	4,9	1,2	0,1	-4,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-1,1	2,3	-2,8	1,6
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	7,6	15,4	-2,5	0,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-4,3	-2,5	-2,9	2,3
Ekipo-ondasunak	0,8	-0,8	-0,9	-1,2
Bitarteko ondasunak	5,7	5,5	0,1	-2,6
Energia	1,1	3,6	-2,4	0,4

(*) 2017ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2016eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62